

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresaren izena ideia oso partikularretik etorri zen; egun batean, pentsatzen geundelarik, gure izenaren lehenengo letrak batzea erabaki genuen, salbuespen batzuekin. Horrela, CIBA izena atera zen: C Cerezotik dator (Ainhoaren abizena), I Ixonetik, B Bengoatik (Anderren abizena) eta azkenik A Angelatik. Izena oso erakargarria dela pentsatu genuen eta horregatik, horrela ustea erabaki genuen.

Gure produktua mota askotako arropa da, hau da, arropa sinpleak gero bezeroek modifikatzeko, haien kontura. Zehazki, prakak, kamisetak, zapatilak, jertseak, jakak eta kirol jertseak izango dira.

Gure arropa modifikatzeko, lau atal erabili ahal dituzte, hala nola, forma, materiala, kolorea eta neurria . Materialari dagokionez 2 aukeren artean erabaki dezakete (kotoia eta tela) .Taila guztiak egongo dira web gunean, hau da, xs, s, m, l eta xl. Hortaz aparte, bezeroek kolore eta forma desberdinak eta berriak aukeratu ahal dituzte: marrak, marrazkiak, letrak...

Zenbait abantaila dauzka gure produktuak, hala nola, zure gustuko arropa diseinatu ahal duzu, ez zara etxetik atera behar (online erosten duzulako)estilo berriak sortuko dira, ez dago inolako arazorik arropa itzultzeko arazo bat izanez gero...

Baina zenbait desabantaila daude, hala nola, ezin duzu arropa probatu, itxaron behar duzu arropa heldu arte eta itzulpena egin nahi baduzu 4 egun itxaron behar duzu, Txinan kokatuta gaudelako, ez Espainian; orduan, bi egun izango dira arropa Txinara bueltatzeko eta beste bi egun arropa Espainiara bueltatzeko.